

/ Nabarmentzekoak

- > Getxoarte sarien deialdiak (3. or.)
- > Eskaintza turistikoa berria Getxon Aste Santutik aurrera (4. or.)
- > Aurre-inskripzioa zabalik udako kirol ikastaroetan (5. or.)



Liburu Azoka lehenengo aldiz Romon (3. or.)

Hitzaldi musikalak. Hilak 12, ostirala, 18:00h, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolako mediatekan, "Culturas diversas de Europa y Asia", José M^a Bretosen eskutik. 3€.

A-GENDA

Nazioarteko Dantza Eguna. Hilak 27, larunbata, San Nikolas plazan, dantza akademia eta taldeen eskutik. 12:00etan, dantza-eskola irekia eta koreografiatua, eta 19:30ean, dantza erakustaldia.

Informazioa ekarriko du Euskadiko historian gutxien ezagutzen den garaietako bati buruz

Punta Begoñan ezustean historiaurreko aztarnategi bat aurkitu da

Punta Begoñan egindako kanpaina arkeologikoak ezusteko aurkikuntza bat ekarri du; hain zuzen, historiaurreko aztarnategi baten arrastoak azaldu dira. Horri esker, datu gehiago izan ahalgo ditugu Euskadiko historiako garai ezezagunenetarik bati buruz. "Horrelako ezaugarriak dituen aurkikuntza baten aurrean zuhurtzia izan behar da, eta ikerketa lanak zorrotasunez egin behar dira. Bada, horrek laborategiko lan intentsua eskatu du, aurtengo ekainera arte iraungo duena; hain zuzen, indusketak berrabiarazten diren arte", adierazi du María Peraitak, zaharberrikuntzan eta ondare-kudeaketan espezializatutako arkitektoak. Peraita Ondare Eraikia-



Izan ere, gure lurraldean ez dago apenas mota horretako lekukotzarik, are gutxiago kostaldean. Aire zabaleko giza kokagune horien nolakotasunak asko zailtzen du horiek kontserbatzea eta ikusi ahal izatea. Are gehiago, Bizkaiko kostaldea bezalako gune batean, non eraikin ugari dauden, eta Getxo udalerriko hirigunean bertan. Horrez gain, hondakinen hauskortasuna nabarmendu behar da; izan ere, horiek modu egokian mantenduko direla bermatzeko beharrezkoa izan da aztarnategia estali eta babestea, harik eta eguraldiak berme osoz lan egitea ahalbidetzen duen arte.

Hala ere, Ondare Eraikiari buruzko Ikerketa Taldeko (GPAC) arkeologoek egindako zundatzei esker, aurreratu ahal izan da garai hartan leku horretan egon zitekeen jardueraren berri eman dezaketek ebidentziak daudela. "Berreskuratutako arrastoak ez dira bereziki ikusgarriak; izan ere, silex eta zeramika zati txikiak eta egur-ikatz arrastoak dira, historiako garai horretan ohikoak direnak. Hala ere, horiek aztarnategiaren antzinatasuna berrestea ahalbidetu dute, eta oso erabilgarriak izango dira gure historiari eta bizitzeko moduei buruzko datuak lortzeko. Zorte handia izan dugula esan dezakegu; izan ere,

galeriak berreskuratzeko ohiko prozesu bat jarraitu izan balitz, seguruenik aztarnategia suntsitu egingo litzateke", adierazi du Peraitak.

Indusketa kanpaina

Une honetatik aurrera, lehenetsuna izango da Euskadiko historian horren ezezaguna den garai horri buruzko datuak jasotzea. Horretarako egingo den indusketa kanpaina balio didaktikoak nagusituko dira, eta herritarrei zabalik egongo da, indusketa prozesua eta horren emaitzak bertatik bertara ezagutzen joan ahal izateko.

ren Ikerketa Taldeko (OEIT) eta Kultur Paisaiak eta Ondarearen UNESCO Katedrako kidea da, biak ala biak EHUko erakundeak.

Aurkitutako aztarnekin orain arte egindako ikerketen artean, karbono-14 eta termolumineszentzia analisiek Neolitoaren azken etaparen eta Kalkolitoko hasieraren artean kokatzen dute aztarnategia; hau da, duela 5.000 urte. Une horretan hasi ziren orokortzen aire zabaleko giza kokaguneak, eta gaur egungoa bezalako gizarte-egitura konplexuago baterako lehenengo urratsak ematen hasi ziren. Aurkikuntza herritarrei zabalteko indusketa kanpaina bat eta dibulgazio-eta heziketa-jarduerak egingo dira.

Orain arte, praktika akademikoek kanpaina bat jarri da martxan indusketan, EHUko Historiako graduako unibertsitateko ikasleei zuzendutakoa. Praktiketarako izen-ematea hurrengo astetik aurrera egin ahal izango da, EHUk zehaztutako ohiko bideetatik. Aldi berean, aurkikuntza herritarrei zabalteko hainbat jarduerak egingo dira; esate baterako, berriazko bisitak, familiei zuzendutako jarduerak, eskoletako tailerrak eta etorkizuneko ibilbide eta erakusketak, gaiaren inguruko erakunde entzutetsuekin batera, Bilboko Arkeologi Museoa, adibidez.

400.000 pertsona baino gehiago joan dira RKEra bere ibilbidearen lehenengo urtean

400.000 pertsona baino gehiago joan dira RKEra martxan jarri zenetik, 2018ko apirilaren 9an, hain zuzen. Instalazioak apurka-apurka joan dira zabaltean; bertan, Kultur Etxeak antolatutako tailerrak eskaintzen dira, eta entseguak egingo dituzte hainbat abesbatzek (Zozoak, Areetxo Ganbera Abesbatza, Kantuz Itzurbaltzetan eta Gizatiar), euskal dantzen taldeek (Berantzagi eta Zasi Eskola), kultura-arte-kotasun dantza taldeek (Acsabol, Pro-Bolivia eta Pagkakaisa) eta bestelako taldeek (sevillanak, yoga, tai-chi...). Emakumezkoen zenbait elkarte ere badago RKEan (Gizatiar, Eskuz-esku eta Mujeres con Voz), baita antzerki taldeek (Bilaina, GAUDE eta Getxoarteren Prosenia egoitza ikerketa

artistikorako bekak); horiez gain, erditzeko prestaketa bada, Osakidetza eta Metafisikaren eskutik; eta Gaude (dantza), Hazsten (zumba egokitua) edo irakurketa kluba ere izaten dira. Sinope elkarteak hileko hitzaldiak egingo ditu bertan. Kultur Etxeak hainbat ekitaldi antolatu ditu: Komiki Aretoa, Getxoarte, antzerki zikloak, AixGeTxo! eta Ramiro Pinilla lehiaketaren sari-banaketak, ipuin-kontalariak, liburuen aurkezpenak... Entsegu gelak ere martxan daude, alokatzeko, instrumentu eta guzti.

Pertsona nagusiak

Hirugarren solairua maiatzean ireki zen eta Getxo Lagunkoia eta pertsona nagusien dinamizazio zer-



bitzuaren egoitza bezala ezarri zen. Jarduera fisikoari dagokionez, Getxo

Kirolak-ekin elkarlanean, RKEan mantentze-gimnasia eta pilates eta yoga eskaintzen dute (80 pertsona daude horietan); eta gimnasioa aholkularitza pertsonalatuarekin (gaur egun 104 joaten dira). Osasun Lagunkoia-Salud + 60aren barruan hitzaldiak antolatzen dira Osakidetzarekin elkarlanean (15-60 pertsona). Orkestradun dantza saioetara batez beste 100 pertsona joaten dira eta Zineadin-Cine +60 saioetara 150en bat. Zenbait ikastaro ere izan dira: Lehen Sorospenak, Oroimen aktiboa eta Smartphone lagungarria; horietan 42 pertsonak hartu dute parte. RKEan hirugarren solairuan ileapaindegia, podologia eta masajista zerbitzuak ere badaude (urtebetean 10.000 zerbitzu eskaini dira -batez ere ile-apaindegian-).



APIRILAK 11 OSTEGUNA

Liburu Azoka. Romoko Santa Eugenia plazan. 10:00-14:00 eta 17:00-20:00. Tailerrak, ekitaldiak...egunero.

Literatura solasaldia. Algortako Kasinoan, 19:45ean, Kultur Etxearen sortze-idazketa tailerraren eskutik, Sara Mesaren "Cicatriz" liburua mintzagai.

Getxon Zuzenean. 20:00etan, El hombre que fue lunes taldearen kontzertua (pop-rock), Areetako Gato Pardo pubean.

Gizatiar. Romo-Areetako Emakumeen elkarte sozio-kulturala. Antzerkia: "Obras cortas y rincón de poesía", Atrézo taldearen eskutik. 18:10ean, Romoko San José parrokiako ekitaldi-aretoan.

GetxoMeeting. 14:30ean, Getxolanen (Ogoño 1, Areeta) enpresa topagunea: "Ekitaldi bat antolatuta nahi al duzu? Prozesua erraztuko dizuten gakoak eta esperientziak partekatuko ditugu". <https://www.getxo.eus/eu/getxolan/noticias/303>

Hitzaldi-solasaldia. Romoko Ibar Nagusien Etxean (Lope de Vega 12), 19:00etan. Gaia: "El deterioro del sistema público de Salud". Hizlariak: Juan Luis Uribe (Prebentzio Medikuntzan eta Osasun Publikoan aditua) eta Víctor Etxayo (Pentsio Publikoaren Sistemaren aldeko Koordinakundearen presidentea). Antolatzailea: Uribe Kosta-Eskuinaldeko Pentsiodunen Plataforma.

APIRILAK 12 OSTIRALA

Liburu Azoka. Romoko Santa Eugenia plazan. 11:00-14:00 eta 17:00-21:00.

Kontularien Kluba. Algortako Kultur Etxean, 19:00etan, ipuin-kontalaria izan edo entzun nahi duten nagusiez osatutako klubaren saioa. Gaiaren irudia, martxoaren 18tik aurrera liburutegien Facebookoan.

Cinema Paradiso. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, "Lazzaro felice" filma eta foruma. Hizk: italiara. Zuzendaria: Alice Rohrwacher. 12 urtetik gorakoentzat. 3,50€.

Hitzaldi musikalak. 18:00h, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolako mediatekan, "Culturas diversas de Europa y Asia", José M^a Bretosen eskutik. Sarrera: 3€.

15. kontzertu sakroa. 20:00h, Ama Mesedeetako elizan, Ondarreta abesbatza eta Ganbera Orkestrarekin (metala eta perkusioa).

APIRILAK 13 LARUNBATA

Liburu Azoka. Romoko Santa Eugenia plazan. 11:00-14:30 eta 17:00-21:00.

Kontzertua. 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 2015ean Santanderreko "Paloma O'Shea" Nazioarteko Piano Lehiaketan irabazle izandako Juan Pérez Floristánen piano errezitaldia. Sarrera: 10€.

Ingurumen Aretoa. 10:15-12:15h, familientzako Escape Rooma. Beharrezkoa da alde zuretik izena ematea. Tel.: 688 88 35 96 <http://www.ingurumenaretoagetxo.eus/?lang=eu>

Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukia eragizko-tasunaren erantzule izango.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

APIRILAK 14 IGANDEA

Liburu Azoka. Romoko Santa Eugenia plazan. 11:00-14:30.

Haur zinea. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 17:00etan, "Trenk, el pequeño caballero". Gaztelaniaz. Adin guztientzat. Sarrera: 2,50€.

Ingurumen Aretoa. Txiki tailerrak: "Egin ezazu zure plater hegalaria!" 6-14 urte. 10:30etik 13:30era. Beharrezkoa da alde zuretik izena ematea. Tel.: 688 88 35 96 eta <http://www.ingurumenaretoagetxo.eus/?lang=eu>

APIRILAK 15 ASTELEHENA

Odol-emate. Algortako Geltokia plazan. Goiz eta arratsalde.

APIRILAK 18 OSTEGUNA

Ingurumen Aretoa. Zenbait ekitaldi hilaren 22ra arte. Tel.: 688 88 35 96. <http://www.ingurumenaretoagetxo.eus/?lang=eu>

APIRILAK 23 ASTEARTEA

XXXVI. Haur Zinema Jardunaldiak. 3. orrialdea ikusi.

APIRILAK 24 ASTEAZKENA

XXXVI. Haur Zinema Jardunaldiak. 3. orrialdea ikusi.

Ipuinaren ordua. Algortako Kultur Etxean, 19:00etan, norberaren zein besteen olerkiak irakurri edo entzun nahi dituzten olerkia zaleen saioa. Oraingo honetan, Amado Nervo.

APIRILAK 25 OSTEGUNA

Odol-emate. Areetako Geltokia plazan. Goiz eta arratsalde.

XXXVI. Haur Zinema Jardunaldiak. 3. orrialdea ikusi.

Ipuinaren ordua. Romoko Kultur Etxeko haur-liburutegian, 18:00etan, "Puertas de papel", Alabazaneke Pedro Ruizen eskutik. 3-10 urte.

Getxon Zuzenean. 20:00etan, Two in company (popa), Kirol-Portuko Silver's Tavernen.

APIRILAK 26 OSTIRALA

XXXVI. Haur Zinema Jardunaldiak. 3. orrialdea ikusi.

Zine-Kluba. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, "El tercer asesinato" eta foruma. Zuzendaria: Hirokazu Kore-Eda. 12 urtetik gora. Sarrera: 3,50€.

APIRILAK 27 LARUNBATA

36. Haur Zinema Jardunaldiak. 3. orrialdea ikusi.

Nazioarteko Dantza Eguna. Algortako San Nikolas plazan, bertoko dantza akademia eta taldeen eskutik. 12:00etan, dantza-eskola irekia eta koreografiatua, eta 19:30ean, dantza erakustaldia. Sarrera dohainik.

Ingurumen Aretoa. 10:00-14:00, Bolueko esploratzaileak + familientzako Escape Rooma. Aldez aurretik izena ematea. Tel.: 688 88 35 96. <http://www.ingurumenaretoagetxo.eus/?lang=eu>

APIRILAK 28 IGANDEA

XXXVI. Haur Zinema Jardunaldiak. 3. orrialdea ikusi.

Jazz kontzertua. 19:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Pio Lindegaarden omenezko kontzertua, Charles McPherson Quarteten eskutik. Sarrera: 12€.

Ingurumen Aretoa. 10:00-14:00. Umeentzako marrazki lehiaketa: "Ama lurra". Aldez aurretik izena ematea. Tel.: 688 88 35 96 <http://www.ingurumenaretoagetxo.eus/?lang=eu>

Indarrean da bizitegi-eraikinetan irisgarritasuna bermatzeko ordenantza

Getxoko bizitegi-eraikinetan irisgarritasuna bermatzeko baldintzak arautzen dituen udal ordenantza hilabete honetan bertan sartu da indarrean, behin betiko onartu ondoren. Ordenantza 2011 urtean aldatu zen azken aldiz eta orain egokitu egin da, hau da, nazioarteko mailan aitortuta dauden irisgarritasun unibertsaleko egungo eskakizunak betetzeko egokitu da, nahiz eta aurrekoaren egiturari eta espirituari eusten dien. Gogoratuko denez, iazko azaroko udalbatzan onartu zen azken aldaketa, behin-behinean. Ondoren, jendaurreko informazioarako epealdia amaituta, eta erreklamaziorik edo iradokizunik ez denez aurkeztu epe horretan, behin betiko onetsi da ordenantza.

Udal araudi berri honen arabera, eraikin batzuetan bestelako instalazio edo elementuak jartzea baimenduko da, zehazki beren eraikuntza-ezaugarrien ondorioz igogailurik jarri ezin den eraikinetan; horietan, arrapalak nahiz plataformak, bertikal nahiz inklinatuak, edo eskaierak igotzeko aukerak ipini ahal izango dira barneko irisgarritasuna hobetzeko, baita eraikinetako eta atarrietako kanpo-sarbidetan.

Herritarrek eta jabeen erkidegoek duten eskariari erantzun nahi dio ordenantza berriak, 2010eko irailaren 12a baino lehen eraikitako etxebizitza-eraikinen irisgarritasuna errazteari buruzkoa.

Aipatutako elementuak, nagusiki, eraikinaren barrualdean kokatu beharko dira. Eraikuntzaren kanpoaldean kokatzeko, jabetza pribatu edo jabari publikoko lekuetan kokatu ahal izateko bal-



dintzak, igogailuak kanpoaldean ipintzeko bete behar diren berberak izango dira. Igogailuei dagokienez, araudiak ezartzen du kokaleku ahalik eta onena hautatuko dela eta, nagusiki, eraikinaren barruan instalatu-

ko dela; barruan ipini ezin izango balitz, eraikinaren kanpoaldean jarri ahalik da. Horrez gainera, sarrera-ibilbideek eta kabinaren neurriek, ahal dela, irisgarritasun-araudian finkatutakoa bete beharko dute.

21 Udaltzainen hautapen-prozesua kudeatzeko hitzarmena

Udalak hitzarmena sinatu du Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin; horren bitartez bere esku uzten du beharrezkoak diren edozein jardueraren materiala, tekniko edo zerbitzuko egitea Tokiko Poliziaren 21 udaltzainen hautapen-prozesurako. Neurri horrekin Udalaren helburua da ahalik eta arinen eta era eraginkorrean betetzea Udaltzaingoan sortu diren laneko bajak, bai abenduaren 14ko 1449/2018 Errege Dekretua -udaltzainen jubilazioak 60 urterekin betetzearen ondorioz bai beste arrazoi batzuegatik sortutakoak. Lan Eskaintza Publiko honen ar-

gitalpena (21 agente plaza Udaltzaingoarako) 2019ko apirilaren erdialdean egitea espero dute. Ondoren, eskaerak aurkezteko epea zabalduko da eta egin behar diren probak egingo dira. Aurreikusita dago hautapen-prozesua urrian amaitzea. Praktiketako funtzionarioak izendatu ostean, azaroaren hasieran hautatutako agenteak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiara joango dira oinarritzko ikastaroa egiteko eta horrela, 2020. urteko udan, hautatutako agenteak Getxoko Udaltzaingoan sartuko litrateke praktiketako funtzionario bezala.

***Jaietan txosnak jartzeko eskaera.** Udalerriko elkartek San Isidro, Andra Mari, Algorta, Portu Zaharra eta Romoko jaietan txosnak ipintzeko eskaera egiteko deialdia onartu dute jada. Horretarako ezinbestekoa da, besteak beste, erakunde eskatzailea elkarrean udal erregistroan, gutxienez, 2018ko maiatzaz geroztik izatea. Eskaerak egiteko epea apirilaren 17an itxiko da San Isidroko jaietarako eta maiatzaren 20an gainerako jaietarako. Oinarriak eta bestelako dokumentazioa <https://www.getxo.eus/eu/servicios/avisos/311> webgunean, HABetan eta Jai Arloan daude.

Diru-laguntzak euskara sustatzeko

Euskararen erabilera gizartearen esparrutik sustatzeko Tokiko Gobernu Batzarrak hainbat diru-laguntza onartu ditu. Bizarra Lepoan Elkartek 79.488€ jasoko ditu, Gehitu Kultura (59 elkarte) eta Gehitu Kirola (47 kirol elkarte) egitasmoen jarraipen eta dinamizazio lanak egiteko eta Bapuruke egitasmoaren barruan aisialdiko jarduerak antolatzeko. HIRUKA kooperatibak 62.017€ eskuratuko ditu aldizkaria eta atari digitala argitaratzen laguntzeko; ALBE, Algortako Bertso Eskolak 50.320€ bertsolaritza sustatzeko eta bertso jaialdiak antolatzeko, eta EGIZUK 42.000, besteak beste, Berbalaguna eta kultur jarduerak, Mintzakua-drillak, Kirola Euskaraz!, Kultura Euskaraz! UKITX Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoa eta Beharsare sustatzeko.

Azkenik, Azebarri Kultura Elkartek 10.000€ko diru-laguntza jasoko du, euren lokala euskararen arnas gunea izan dadin, eta KORRIKA dela eta, antolatutako jardueretarako 6.000€ onartu dira.


Liburu Azoka lehenengo aldiz Romon

Datorren igandera arte, apirilaren 14ra arte, eta lehenengo aldiz Romon, Santa Eugenia plazan eta RKE-Romo Kultur Etxean izango da Liburu Azoka. Plazan bisitariak azken nobedadeak erosteko aukera izango dute %10eko deskontuarekin eta, erosketa bakoitzeko, Azokaren erakusketan ikusgai izango diren lanetako baten zozketan parte hartzeko txartela emango da. Ohi denez, Kultur Etxearen liburutegiek beren gunea izango dute azokan eta bertan irakurleei liburuak mailegatzeko aukera eskainiko zaie, etxera eraman ahal izango dituztelarik. Gainera, umeek eta gazteek komiki eta ipuinak aurkituko dituzte bertan irakurri ahal izateko. Azoka, goizez eta arratsaldean egongo da zabalik, igandean, hilak 14, izan ezik, egun horretan goizez soilik egongo baita irekita.

Jarduerei dagokienez, egunero haurrentzako eskulan tailerrak eta jolasak izango dira eta baita pintura-erakusketa solidario bat ere. Azken horretan, *Animaliak eta loreak* izeneko, Zirri-Marra arte-taldearen haur tailerreko ikasleen lanak bilduko dira. Horiek 5 euroan egongo dira salgai eta bildutako dirua La cuadri del hospi taldeari emango diote. Gurasoen elkarte horrek honako helburu hauek ditu: haur-minbizia humanizatu eta gizarteratu, ikerkuntza sustatu eta hezur-muinaren dohaintza zabaldu.

Egunez egun

Ostegunean, hilak 11, abiatuko da Azoka bertoko ikastetxeetako ikasleen jendaurreko XXI. Irakurketarekin, 10:00etatik aurrera. Arratsaldean, 17:30ean, *Hitzen melodia* euskarazko musika eta literatura ikuskizuna izango da, Aixerrota BHIk bultzatutako *Munduko bertsolaritza* proiektuaren ikasleen eskutik. 18:00etan, Cataplina *Animalario de Animacuelos* ipuin-kontakteta izango da, gaztelaniaz eta familia osoarentzat. Eguna



borobiltzeko, 19:00etan, adin guztientzako *Just Dance* dantza tailer elebiduna hasiko da.

Biharamunean, ostiralean, Aixerrota BHIko ikasle-talde batek *Ohean irakurriko?* performancea antzetzuko dute (ele bietan; adin guztientzat). Ikastetxe horretako beste ikasle batzuk, Sonia Andujar olerkariarekin batera, adin guztientzako poesia-tailerak eskainiko dituzte 18:00etatik 20:00etara. Azkenik, 18:00etan, euskarazko ipuin-kontakteta izango da Keimaren eskutik.

Larunbatean, hilak 13, eguneko egitaraua Kids&Us Getxo-Algortak eskainitako ingelesezko *A World of Magic* ipuin-kontaktetarekin zabalduko da, 11:00etan. Ordubete geroago, Disko-festa izango da eta, arratsaldean, 19:00etan, Alessandro Baric-

coren testuan oinarritutako *Homero, Iliada* irakurketa dramatizatu izango da Utopia taldearen eskutik.

Igandean, azokaren azken egunean, literatura-gosaria izango da 11:30ean hasita, hurrengo egileekin: Cataplina, Diego López, Pablo Müller, Julen Lezamiz, Sarah Rodríguez Cigaran eta Adrián Martín Ceregido. Horiek guztiek eta baita Vicente Domínguez eta Fernando Palazuelos idazleek ere, liburuak sinatuko dituzte liburu-denden saltokietan azoka osoan. 12:00etan, Lucía Asué Mbomio kazetariak *Las que se atrevieron* elkarrizketa-liburuari buruzko literatura-solasaldia egingo du. Azkenik, azokaren azken ekitaldia izango da 13:00etan, euskarazko *Cantafábulas* familia osoarentzako ikuskizuna, hain zuzen ere.

Eskaerak ekainaren 5era arte aurkez daitezke

Getxoarte sarietarako deialdia

Datorren ekainaren 5era arte zabalik egongo da Getxoarte sarietarako deialdi berri batean parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea, praktika eszeniko eta plastiko garaikideen eremuetan sorkuntza artistikoa indartzera bideratuta daudenak. Ibilbide profesionala hasi berri duten artistei zuzenduta dago ekimena. Iaz bezala, hautatutako proiektu guztiak jendaurrean erakutsiko dira abenduan, Romo Kultur Etxean.

Erakusketa Programako sariak praktika artistiko garaikideari (pintura, eskultura, soinu artea, bideoa, instalazioak, zeramika, grabatua...) lotutako banakako nahiz taldeko proiektuetarako daude zabalik, bai eta ikerketa praktikoko prozesuetarako ere. Guztira zortzi proposamen aukeratuko dira, eta horietako bakoitzak 700 euroko saria jasoko du. Horrekin batera, aukeratutako proiektuak Getxoarte 2019 saria jasotzeko hautagai izango dira; 2.000 euroko saria izango da, eta artista irabazleak Torreñe Aretoan bere lanari buruzko erakusketa bat egiteko aukera izango du.

Erakusketa Programako sariei dagokienez, metodologia esperimentalak edo forma mistoak esploratu ahal izango dituzten proiektu garaikide eszeniko-performatiboak izango dituzte xedetzat. Bost proposamen hautatuko dituzte, hainbat diziplina landu ahal izango dituztenak: dantza, musika esperimental, performancea, antzerkia, poesia, folkloreaki buruzko ikerketa praktikoa eta abar. Sari bakoitza 1.000 eurokoa izango da.

Deialdiaren oinarri guztiak honako helbide honetan ikus daitezke:

<https://www.getxo.eus/eu/getxoarte>

Piano errezitaldia Areetako Musika Eskolan

Juan Pérez Floristán pianistak kontzertua eskainiko du Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan larunbat honetan, hilak 13, 19:30ean. Sarreraren prezioa 10 euro da.

Santanderreko 2015eko *Paloma O'Shea* Piano Lehiaketan Sari Nagusia eta Entzuleen Saria irabazi ditu, besteak beste. 25 urte baino ez ditu eta dagoeneko erreferentzia bat da Espainiako eta Europako musikarien belaunaldi berrien artean.

Ondarretaren Eliz-kontzertua

Ostiral honetan, hilak 12, 20:00etan, Ondarreta Abesbatzaren eta Ganbera Orkestraren (metala eta perkusioa) 15. erlijio-kontzertua egingo da. Errezitaldia Ama Mesedeetako elizan izango da.

Jainkotasunetik gizatasunerako Bidaia Espirituala, Areetxorekin

Areetxo Ganbara Abesbatzak eliz-kontzertua eskainiko du datorren asteartean, apirilak 16, Santa Anako elizan, Areetan, *Viaje Espiritual de lo Divino a lo Humano. Tres miradas a Cristo crucificado: de Amor Místico, Divino y Humano* goiburu pean. Errezitaldia Manuel Torre Lledók zuzenduko du eta 20:30ean hasiko da; sarrera dohainik.



Andrés Isasi eta Bleivet abesbatzen kontzertua

Algortako Bariko San Nikolas parrokiak hartuko du larunbat honetan, apirilak 13, Getxoko Andrés Isasi eta Artzenzagako Bleivet abesbatzen kontzertua. Bi taldeak 20:00etan hasiko dira kantatzen. Imanol Ormazaren zuzendaritza pean, eta María Eugenia Martínezek pianoarekin lagunduta, honako pieza hauek abestuko dituzte: Pergolesiren *Stabat Mater*, *Rorate Caeli*, *Ubi Caritas*, *Brahmsen 4. Requiema* eta *Eslavaren Tu es Petrus* eta *Salve Regina*. Saiorako sarrera dohainik da.

Aba Taano berriz Getxon, abesteko

Aba Taano boskote afrikarrak gospela abestuko du a cappella Algortako San Nikolas elizan, hilaren 21ean, igandea, 20:00etan. Nazioarteko zortzi sari jaso ditu taldeak, 150 kontzertu eman ditu eta bost disko grabatu ditu. Kontzertua Música para salvar vidas umezurtz-etxearen aldekoa izango da, Ugandako umezurtzak laguntzeko proiektua (izan ere, taldea bera umezurtz-etxe horretatik sortu zen): musikaren eta dantzaren bidez hazi eta beraien herrialdean bertan etorkizuna izan dezaten. GKE honi eta taldeari buruzko informazio gehiago ezagutu nahi dutenek beraien web orrialdeetan begira dezakete: www.musicaparasalvarvidas.org eta www.abataano.com

laz baino %5,5 handiagoa da

Eskaintza turistikoa Getxon Aste Santutik aurrera

Udalak Aste Santutik aurrera izango duen eskaintza turistikoa berria ezagutzera eman du 77 plan Getxo gozatzeko foiletaren bitartez. Urtero bezala, argitalpenaren helburua da udalerriko eskaintza turistikoa nagusia turistei eta bisitariari ezagutaraztea, era erraz eta bisualean. Halaber, eskaintza beste plan espezializatu eta alternatibo batzuk, baliabiderik ezagunenez gain; gehigarri erakargarriak emanez Getxora etortzen direnak anima daitezzen bisita errepikatzen.

Getxoko 231 enpresak garatutako jardueren eskaintza (planak eta esperientziak) %5,5 hazi da aurten 2018. urtearekin konparatuta, batez ere *Kultura, kirola eta ongizate turismoa*-rekin lotuta daudenak. Gehien hazi diren eskaintzak *Getxo Kosta* eta *Getxo Aktiboa eta Ongizatea* dira.

77 plan

Turismo Bulegoak liburuxka horren 43.000 ale banatuko ditu (gaztelaniaz, euskaraz, ingelesez eta frantsesez). Eskaintza lau atal handitan banatzen da:

- **Getxo Kosta.** 28 plan ditu (+%16,5) 17 enpresak antolatuta, eskaintzaren %36,4 hain zuzen. Belaontzietan eta motordun ontzietan, urpeko bataioak eta ikastaroak, surfa, piragua ibilbidea, paddle-surf eta Aquarium-era bisitak eskaintzen diren jarduerak eta esperientziak gain, aurten, nobedade gisa, Donekajue bidea Kostaldetik egiteko aukera dago -Sail The Wayren ekimena- eta ibilbideak uretako motoretan.
- **Getxo Monumentala eta Kultura.** 20 plan 12 enpresak antolatuta. Eskaintzaren %26 dira eta, besteak beste, era guztietako baliabide kulturalak, naturalak eta arkitektonikoak ezagutzeko bisitak dira: gidatuak, antzeztuak, taxiz, itsasontziz, autogidatuak...; Ramiro Pinilla ibilbidea, jaiak eta gure ohiturekin lotuta dauden esperientziak, eta musika eta argazkigintza jaialdiak. Aurten, berritasun bezala, tokiko

77 PLANES
PARA DISFRUTAR EN GETXO 2019

getxo *ti*
www.getxo.eus/turismo

12 km de Bilbao

MONUMENTAL Y CULTURAL

ACTIVO Y BIENESTAR

CASTELLANO

ondarea hurbiltzeko eta hedatzeko programak daude -Open House Bilbao-Bizkaia-aren eskutik (Getxok lehenengo aldiz hartuko du parte) eta Europako Ondare Jardunaldia-.

- **Getxo Aktiboa eta Ongizatea.** 19 plan 19 enpresak antolatuta eta sustatuta (+%46). Eskaintzaren %24,7 dira eta jarduerak batzuk dira: Goming eta zerurainoko eskalada Bizkaia Zubian, parapente hegaldiak, skate ikastaroak, bide eta ibilbideak txirrindulaz edo korrika Getxo gozatzeko, Room Escape, arkuak... 2019ko berritasunak dira: ibilbide

geologikoa flyscean, hipika, eta ongizatearekin lotuta jarduerak -yoga eta ekialdeko beste arte batzuk-.

- **Getxo Gastronomikoa.** 10 plan dira, 183 enpresak antolatuta (eskaintzaren %13). Aukera dago pintxo-pote ibilbideetan parte hartzeko, hala nola pintxo gozatzeko bisita gidatuak, sukaldaritzat-tailerrak eta ikastaroak, dastatze-saioak...

Ibilbide irisgarria Portu Zaharrean

Era berean, Portu Zaharrean dauden

interpretazio-mahai eta -panelak egokitu ditu dibertsitate funtzionala eta/edo ikusmen urritasuna duten pertsonen eduki horiek irisgarri eduki ditzaten, Map's Voice izeneko lokuzio sistemaren bitartez. Hemendik aurrera interpretazio-panel eta -mahaietan Getxo, Portu Zaharra: Portu Zaharra, etxez etxe aplikazioaren QR kodeak eskaneatu ahal izango dira, ibilbidea osatzeko eta bertako etxe askoren toponimia aurkitzeko.

Informazio gunea Bizkaia Zubian

Zabaldu ditu ateak jada Bizkaia Zubian ondoan jarritako aldi baterako Informazio Turistikoa Guneak, egunero zabalik egongo dena, goizez eta arratsaldez. Aste Santuan ordutegia honako hau izango da: 10:30etik 14:30era eta 15:30etik 19:30era.

Bulego honen eginkizun nagusia da Bizkaia Zubira inguratzen den bisitarien kopuruari behar besteko arreta eskaintzea, baita egonaldia atsegina egiteko eta turistek eta bisitariak tokiko baliabideetara eta guneetara egin ahal dituzten joan-etorriak erraztea ere.

2018 ekitaldiko datuei dagokienez, 22.337 pertsona igaro ziren aldi baterako gune horretatik, aurreko urtean baino %2,98 gehiago. Ikusita kontsultakopurua hazten doala eta urtean zehar egonkor mantentzen dela, zerbitzua zabalik egongo da, lehenengo aldiz, urtea bukatu arte. Zentzu horretan, zerbitzuaren kanpoko identifikazioa eta irudia hobetu dira. Neurri horren bitartez, turistak eta bisitariak Getxo udalerriko eskaintza turistikoa nagusiaren gune eta leku garrantzitsuenak ezagutzera gonbidatuko dira. Bulego nagusia, Ereaga hondartzan dagoena, zabalik egongo da, ohikoa denez, egunero 09:30etik 14:30 arte eta 16:00etatik 19:00ak arte. Igande arratsaldeetan itxita egongo da.

Turismo Bulegoaren Aste Santurako eskaintzari buruzko informazio gehiago jasatzeko, honako helbide honetara jo daiteke: www.getxo.eus/info

Bizkaia Zubiak wifi doakoa eta anonimoa eskaintzen du

Bizkaia Zubiak, Kutxabankekin elkarlanean, doako WIFIa eskaintzen die erabiltzaileei. #Puente colgante FREE WIFI sarerako sarbidea atari baten bidez egiten da, segurtasun handiarekin eta datu pertsonalik eskatu gabe. Enpresak WIFI sarbidea erabiliko du erabiltzaileekin komunikatzeko tresna gisa, beraiek balorazioak egiteko eta hobetzeko proposamenak egiteko, eta baita zubiari buruzko albiste berri emateko ere, esate baterako, laster abian jarriko den Zubi Txartela, eta Bizkaia Zubirako eta Gallartako Meatzaritzaren Museorako sarrera bateratuarena.

Bildutako datuekin, zubia bisitatzeko duten nazionalitateen eta alorrerako oinarrikoak diren beste faktore batzuen mapa zehatza egin ahal izango da, urtarokoa izatearekin batera. Horrela, otsailean eta

martxoan, lotura gehienak 35 nazionalitateko bisitari atzerritarrenak izan ziren, besteak beste, urrutiko Australia, Zeelanda Berria, Japonia, Filipinak, Brasil, Peru eta Argentinakoak, edo hurbileko Portugal, Frantzia, Britainia Handia, Suitza eta abarrek.



Laluca Comunicación saritu dute Vinografic 2019an

Laluca Comunicación Getxoko enpresak identitate korporatibo onenaren saria jaso du estatuko Ardoaren Marketing eta Hedapen Lehiaketan, Astobiza Upeltegiaren *Malkoa* txakolinaren proiektuagatik. Laluca Comunicación agentzia duela 15 urte kokatu zen Getxon, eta komunikazio estrategietan, Branding-en eta sorkuntzan espezializatuta dago. 350 bezeroz osaturiko poltsa du eta 1.200 proiektu baino gehiago egin ditu.



Maiatzaren 10era bitartean aurkeztu ahal izango da eskaera Fadura eta Gobelan edo web orrialdearen bitartez

Aurre-inskripzioa zabalik udako kirol ikastaroetan

Getxo Kirolak-ek epea ireki du uztai-lean eta abuztuan Faduran eta Gobelan eskainiko diren udako kirol ikastaroetan aurre-inskripzioa egiteko. Guztira 1.500 plaza eta 68 ikastaro eskainiko dira. Berrikuntza gisa, Udai-ikastaroa eskainiko da (14-18 urte), hezkuntzako proposamen ez formala. Kirol eta ingurumen arloko jarduerak egingo dira, batez ere aire librean, astelehenetik ostiralera, 11:30etik 14:00etara; besteak beste, igeriketa sinkronizatuko eskolak, waterpolo, uretako erreskatea eta gazteek dantzaren eta musikaren inguruan proposaturiko jarduerak barne hartuko ditu, talde-lanean eta bizikidetzan sakontzeko asmoz, aisialdi osasungarriko ingurune batean.

Eskaintza osatzeko, tenis, padel, igeriketa eta haurrentzako kirol jarduerak antolatuko dira. Azken horietan, ingelesa irakatsiko zaie egunero ordu-batez; eta zaintza zerbitzua egongo da jardueren aurreko eta ondorengo orduerdian. Horrez gain, Kiroletan ikasta-

roa antolatuko da (10-14 urte); bertan, kirol anitzeko jarduerak egingo dira, nerabeen artean kirola sustatzeko.

Epeak

Maiatzaren 10era bitartean aurkeztu ahal izango da eskaera Fadura eta Gobelan edo web orrialdearen bitartez. Online izapidea egiteko, NAN elektronikoa edo sarbide-gako pertsonala erabiliz sar daitezke; azken hori kiroldegietako bulegoetan eskatu beharko da, 08:00etatik 21:30era bitartean. Gakoaren bidez, instalazioak erreserbatu eta ikastaro guztietan altak eta bajak kudeatu daitezke.

Maiatzaren 14an, web orrialdean eta Fadurako eta Gobelako informazio-tauletan argitaratuko da zozketaren emaitza; izan ere, plazak automatikoki esleituko dira, baina kontuan izan behar da eskaera dagoen bitartean pertsona bakoitzak soilik ikastaro batean eman ahal izango duela izena. Plazak libre geratuz gero, esleipen-sistemak prozedura errepikatuko luke,

pertsona bakoitzeko hiru ikastaro egiteko aukera emanez. Maiatzaren 16tik 22ra, erreklamazioak, bajak eta ordu-tegi-aldaketak egin ahal izango dira. Maiatzaren 23tik aurrera, dauden plazak eskainiko dira eskaintza bete arte. Tenis, padel eta igeriketako hastapen mailatik gorako ikastaroetan izena emateko, beharrezkoa da alde aurretik maila egiaztatzea. Programa-liburuxka: Fadura eta Gobelan, eta web orrialdean.

Iker Villanueva Tenis Fadura Taldeko jokalaria Euskadiko Txapelketa-José Luis Moro Oroimenezko Saria irabazi du, kimuetan. Duela gutxi jokatu da txapelketa Laukarizen eta bertan bigarren zerrenda-burua izan zen. Finalean, Ander Anasi irabazi zion, Gasteizko Mendizorroza taldeko kidea, eta lehen zerrenda-burua. Garaipen honi esker, Espainiako Txapelketan izango da Euskadirekin; Cartagenako La Mangaan jokatuko da uztailaren 1etik aurrera.

Tenisa: Euskadiko txapelduna kimuetan

BERRI LABURRAKBERRI LABURRAK

*** Endika Bordas, Arenasen entrenatzaile berria.** Endika Bordas da Arenas Clubeko entrenatzaile berria, Jabi Luacesen orde. Bermeokoak aurre egin beharko die liga txapelketako azken zazpi jardunaldiei. Zuzendaritza areetarrak uste osoa du Endikarengan taldea ondo ezagutzen baitu, iragan uztailaz geroztik bigarren entrenatzailea izan delako.

***Boxeo gau-emanaldia Andra Marin.** Izarrak taldeak boxeo txapelketa bat antolatuko du larunbat gauean, apirilak 13, Andra Mariko probalekuan, 20:00etan. Adán Trenado boxeolariak profesionaleko bigarren borrokaldia jokatuko du. Horrez gain, besteak beste, Nora Bedialauneta gaztea, Unai Ibañéz, Jeremías Fretes eta Mario Sarmientok parte hartuko dute, guztiak getxotarrak.



TAMAINA HANDIKO HONDAKINAK EDO ETXEKO GAUZAK BILTZEKO DOAKO ZERBITZUA
SERVICIO GRATUITO DE RECOGIDA DE ENSERES DOMÉSTICOS O VOLUMINOSOS

TEL: 94 464 43 80

www.getxo.info-citi.es



- Ekintza hauek **900 EURO ARTEKO ISUNAREKIN** zigortu daitezke/ Estos actos son sancionables con **MULTAS DE HASTA 900€**
- Deitu eta hitzordua eskatu hondakinak ateratzeko / Llama y concierta cita para retirar los enseres
- Kaleak garbi eduki eta irisgarri izatea guztion ardura da / Mantener las calles accesibles y limpias depende de todos/as

Udal talde politikoaren iritzia



GETXO HERRIGINTZAN

Gure ametsa Getxo sustatzen jarraitzea da.

GETXO HERRIGINTZAN

amaiagirremunoa@gmail.com

Facebook:

Amaia Agirre Muñoa

Instagram:

@amaiagirremunoa

www.amaiagirre.com



AUKERA EKONOMIKO BERRIAK
KULTURA, KIROLA, NAZIOARTEHOTZEA, TURISMOA, MERKATARITZA.

GETXO HAZTEKO, BIZITZEKO ETA DISFRUTATZEKO
ETXEBIZITZA, AISIALDIA, MUGIMENDUAK, INGURUMENA.

BIKAINASUNA ZERBITZUETAN: AUZOGINTZAN
APARKALEKUAH, GARBITASUNA, SERGIKTASUNA, "SMART GETXO".

3
LEHENTASUN PRIORITYDES

NUEVAS OPORTUNIDADES ECONÓMICAS
CULTURA, DEPORTE, INTERNACIONALIZACIÓN, TURISMO, COMERCIO.

GETXO PARA CRECER, VIVIR Y DISFRUTAR
VIVIENDA, OCIO, MOVILIDAD, MEDIO AMBIENTE.

EXCELENCIA EN LOS SERVICIOS: IMPULSANDO LOS BARRIOS
APARCAMIENTO, LIMPIEZA, SEGURIDAD, "SMART GETXO".

IMPULSANDO GETXO HERRIGINTZAN



PSE-EE
PSOE

ROMO KULTUR ETXEA URTEBETE

Apirilaren 9an urte bat bete zen Romo Kultur Etxea herritarrentzako ireki zenetik zerbitzu ia guztiekin. Hala, auzoa eraldatzeko prozesuaren zati bat amaitu zen, herrian kultur erreferente izatera eraman duena. Modu horretan, kulturaren inguruko eskariari erantzun zaio, bai eta elkarrekin beharrei ere.

Baina aldaketa guztiek izaten dituzte erresistentziak, eta espazioaren irekiera ere argi-ilunez inguratuta egon da. Udalerriko adineko pertsonak hasieran erreparatuak izan zituzten Lope de Vegako instalazio zaharretatik mugitzeko, eta mugimendu populisten jarrera hori euren mesederako erabili zuten. Hala ere, poliki-poliki adineko pertsona horiek gero eta hobeto hartzen joan dira RKEren hirugarren solairuko zerbitzuak, beraiei zuzendutakoak. Gehien eskatzen dituzten zerbitzuen artean honako hauek daude: jarduera fisikoa aholkularitza pertsonalizatuarekin, ile-apaindegi zerbitzua, podologia eta masajista. Udal Talde Sozialistak argi izan du herritar guztien beharretara egokitzen dena eta guztiak barne hartzen dituen delako benetako arrerapena.

CS

PRESORIK GABEKO JAIK

Uste dugu guztiok ordaintzen ditugun jai herrikoiek ez direla izan behar preso terroristen kolektiboari eskainitako omenaldien edo pankarten erakuslehoak. Hain zuzen, legegintzaldi honetan gune neutralen alde borroka gehien egin duen udal taldea izan gara. Gure zinegotziak, Santiago Sainzek, azken Osoko Bilkuran akordio bat lortu zuen jaietan ETari erreferentzia egiten dioten ekitaldiak diru publikoarekin laguntzea debekatzeko. Erabaki hori EAJren, PSE-EEren eta Ciudadanosen aldeko botoei esker hartu zen. EH Bilduk, espero bezala, aurka bozkatu zuen, eta GUK eta PP abstentitu egin ziren.



AISIALDIRAKO GUNE BAT NEGURIKO GELTOKIAN

BERRIZTATU GABE



BERRIZTATURIK



Neguriko kantina toki historiko bat da, ikur bat getxotarrantzat. Hala ere, tamalez, gobernu taldeak duela askotik utzitako eta ahaztutako eraikinetako bat da. Entzungor egin zieten eraikina birgaitzeko eskatzen zuten 700 herritar baino gehiagoren sinadurei. Birgaitu eta aisialdirako gune bat irekitzeko proposatzen ari gara aspalditik. Ia eraberritze lanik behar ez duen proiektua da, jada badauden bi solairuak aprobetxatuko lirateke eta. Lokalak honako hauek izango litzuzke: komun publikoak, ordenagailuentzako eta irakurketarako gunea, erabilera anitzeko espazioa, ikasteko eta bileretarako gunea eta kanpoko terraza. #EsnatuGetxo



UDALERRI MAILAN ERE PENSIOAK DEFENDATU EGIN BEHAR DIRA

Urtebetez aldarrikapen eta protesta jarraituak gauzatu ostean, Bizkaiko Pentsionisten Mugimendua erakutsi du indar bukaezina duela. Haiei esker, pentsioei buruzko eztabaida instituzioetako maila guztietara iritsi da, eta pentsioen alde gizartea kalera ateratzea lortu dute. Hain zuzen, urtebete igaro berri da Getxoko Udaleko osoko bilkuran proposamen bat aurkeztu genuenetik Bizkaiko Pentsionistak Martxan plataformak eskatuta. Adinekoentzako pentsio duinak gotortzeko beharra eztabaidatzea zen helburua, etorkizunera



begirako ikuspegiarekin. Emaitza oso argia izan zen: EAJk, PSE-EEk, PPK eta Ciudadanos kolektiboak eskatzen zuenaren AURKA bozkatu zuten. Egoera horrek argi uzten du duintasunez bizitzea ahalbidetuko duten pentsioen aldeko borroka jarraitu behar duela, agintzen duenak agintzen duela. Hori dela eta, larunbatean guztiok kalera aterako gara, gizarte guztiari eragiten dion belaunaldiarteko aldarrikapena da eta. Bilboko Jesusen Bihotzean ikusiko dugu elkar 18:00etan. Pentsio duinen alde!



GETXOKO ERAIKIN HUTSAK BALIOAN JARTZEAREN ALDE

Getxon asko dira itxita edo abandonatuta dauden eraikinak, eta horietako askok baliteke **ondare arlotik balioarriak izatea**. Etxe hutsak daude San Jose parkean, San Martinen, Algortako Etorbidean, Joaquín Arizagan, Arrigunagako jaitsieran... Getxoko ondare arkitektonikoaren parte diren eraikinak katalogatu, babestu eta balioan jarri nahi ditugu. Bigarren aukera bat eman nahi diegu. Izan ere, etxe horiei eman ahal diegun **erabilera askotarikoa da**: udal zerbitzuak, kultur etxe xumeak, auzokideentzako lokalak edota alokairura bideratuko diren etxebizitza eredu

berriak.

Hori dela eta, martxoko osoko bilkuran mozio bat aurkeztu genuen, honakoa proposatuz:

- Hutsik edo erabilerarik gabe dauden eraikinen **zentsua** egitea, titulartasuna zehaztuz: publikoak edo pribatuak.
- Udal eraikinen kasuan, **prozesu parte hartzaile bat** abiatuko da auzokideekin batera, eraikinari eman ahal zaion erabilera, inbertsioa eta epeak zehazteko.
- Pribatuak diren kasuetan, **protokolo bat** egingo litzateke, jabeen identifikazioa, epeak eta inbertsioa zehazteko.

Hau guztia aurrera eramateko, urtero gutxienez 1.500.000 euro bideratzea proposatu genuen. Zoritxarrez, **EAJk, PPK eta PSEk ezezkoa eman zioten proposamenari**, eta osoko bilkurak ez zuen onartu. Euren eredu bestelakoa da: eraikinak abandonatu, eraitsi eta berriak eraiki, espekulazioari atea zabalduz. EH Bildutik Getxoko **hirigintza-eredua aldatzea** defendatzen jarraituko dugu: landa-eremua babestu, gure ondarea zaindu, alokairu soziala sustatu, etxebizitza eredu berriak aztertu eta abar.